



Nolako da EGA?

EGA lortzeko hiru proba edo azterketa gainditu behar dira:

- 1) Atariko Proba
- 2) Proba idatzia
- 3) Ahozko Proba

Atariko Proba. Gehienez 100 item dituen test erako proba da eta hori gaintzeko %75 erantzun zuzen eman behar dira. Lehen zatia grabazio bat entzun eta horri buruzko galderak erantzutea da. Ondoren, gainontzeko itemak egiteko ordubete izaten da.

Proba idatzia. Bi ordu eta hogeita bost minututan honako ariketa hauek egin behar dira: *Idazlana, Esaldiak berridaztea, Lexikoa* eta *Irakurriaren ulermena*. Azken hiru ariketen puntuazioa batera biltzen da.

Ahozko Proba. Aurreko biak gaintuta, azken proba honetan bi ariketa hauek egin behar dira: batetik gai baten azalpena eta bestetik bat-bateko elkarrizketa saioa. Bost bat minutu ariketa bakoitzerako. Proba hau egiteko azterketariak binaka aritzen dira, bikoteka.

EGA. Jakingarriak

Adina? Gutxienez 17 urte eduki behar dira edo 2010ean bete.

Deialdi berean beste erakunderen batean EGArako matrikulatuta egonez gero, ezingo da honetan parte hartu

Matrikula non? Internet bidez. Honako helbidean: <http://www.hezkuntza.ejgv.eus> [kadi.net/euskara](http://www.kadi.net/euskara)

Zenbat azterketa urtean? Urtero bi bider egiten dira EGA agiria lortzeko azterketak. Pentsan iragartzen dira matrikula egiteko deialdiak.

Azterketak non? Matrikula egitean azterketa tokiak, egunak eta orduak zehazturik izaten dira: hiriburuetan egiten dira.

Emaitzak jakiteko? Aurrez iragarritako datetan, Hezkuntza Sailaren web gunean kontsulta daiteke: www.hezkuntza.ejgv.eus [euskadi.net/euskara](http://www.euskadi.net/euskara)

Notarik gordetzen da? Ez. Suspendituz gero, berriz hasi behar da prozesu osoa.


Erreklamaziorik egin daiteke? Bai. Kalifikazioak berrikusteko eska dezake azterketariak berak, baita proba idatziaren zuzenketa ikusteko ere, horretarako dauden epeetan.

Proba idatzia egin duenari baino ez zaio erakutsiko, esandako egun eta orduan.

Ahozko probaren emaitza berrikustea eskatu ahal izateko, azterketariak grabatua izan behar du saioa.

Aztertzaileak nor dira? Esperientzia handiko euskara irakasleak dira EGArako aztertzaileak, Hezkuntza Sailak izendatuak.

EGA 2010



Euskararen Gaitasun Agiria

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 1982an sortutako euskara agiria da. EGAK lehenagoko hainbat erakunderen euskara azterketen tradizioa jasotzen du, batez ere Euskaltzaindiaren D tituluarena.

EGA ALTE (Association of Language Testers in Europe) erakundeko kide da: azterketak prestatzen, antolatzen eta gauzatzen jokabide kode estandarri jarraitzen zaio. Europako Kontseiluaren Erreferentzia Markoaren barruan C1 maila dauka: A1, A2, B1, B2, **C1**, C2.

EGA egiaztagiria honako hau adierazten du: EGAdunak euskaraz badakiela behar hainbateko trebetasunez, ahoz eta idatziz; baita Euskaltzaindiak erabakitako arauak ere.

EGAk hainbat lanpostutarako (arlo publikoan zein pribatuan) eskatzen den euskara mailaren egiaztagiria balioa du.

EGA ez da ezein jakintza arlo berezitarako agiria; alegia, ez da bereziki irakaskuntzarako, edo kazetaritzarako edo itzulpenzintzarako agiria.

Atariko Proba

Lehenengo proba da. 100 item ditu. Hizkuntzaren hainbat alderdi neurtzeko, sail hauetako itemak biltzen ditu nahas-mahas:

Entzutezko ulermena (grabazio bat)	15
Ahozko hizkuntzan oinarrituak	30
Lexikozko ariketak	10
Morfosintaxia (deklinabidea, aditzak, esaldiak...)	24
Euskara batuaren arauak jakitea	8
Hizkuntza idatziaren ulermena	8
Beste batzuk (datak, orduak, eragiketak...)	5

75 erantzun zuzen behar dira gainditzeko. Irakurgailu optikoz zuzentzen da.

Proba Idatzia

Hona ariketak, gehieneko eta gutxieneko puntuazioekin:

Atalak	Ariketak	Puntuazioa Gehienez	Puntuazioa Gainditzeko
1	Irakurriaren ulermena Lexikoa	10	-
		10	-
2	Idazlana Esaldiak berridaztea	20	10
		10	-
Idatzia guztira		50	27
	Entzutezko ulermena	10	-

Azken kalifikazioa GAI / EZ GAI izango da. Entzutezko ulermena proba idatziaren egunean egin daiteke. Ahozko probaren atal bat da.

Aztertzaileek zuzendu eta kalifikatu jardunbide baten arabera egiten dute. Azterketa guztiak bi bider zuzentzen dira. Bi aztertzailek zuzenketa independentea egiten dute, eta batez bestekoak ateratzen dira.

Ahozko Proba

Bi atal ditu:

1. Entzutezko ulermena
2. Ahozko ariketak

Bigarren atalean, honako bi ariketa hauek egin behar dira:

- Gai baten ahozko azalpena.
- Bat-bateko elkarrizketa saioa.

Gaia (testua) prestatzeko 30 minutuko denbora dago, apunteak hartzeko edo gidoia egiteko.

Azalpenaren ondoren bi azterketariren arteko elkarrizketa-saioa egiten da, hamar bat minututan.

Epaimahaia bi aztertzailek osatzen dute.

Proba hau neurtzeko ALTEK C₁ mailarako finkatuta dauzkan gaitasunak neurtzen dira:

- a) linguistikoa
- b) diskurtsiboa
- c) funtzionala
- d) soziolinguistikoa

Azterketariak bere ahozko proba grabatzeko eska dezake. Informazio gehiago ordezkaritzetan.

PUNTUAZIO TAULA

Probak	Atalak	Ariketak	Puntuazioa Gehienez	Puntuazioa gainditzeko
AHOZKOA	1	Entzutezko ulermena	10	-
	2	Mintzamina: -Ahozko azalpena	20	20
		-Bat-bateko elkarrizketa	20	
	Ahozkoa guztira			50

- Azterketa materialen liburuak, erantzun eta grabazioekin batera, Hezkuntza Sailak argitaratzen ditu bi urterik behin.
- EGaren webgunea:
<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>

Matrikula epeak

- Lehen deialdia: urtarrilaren 11tik 22ra.
- Bigarren deialdia: ekainaren 28tik uztailaren 9ra.
- Pentsan iragartzen dira eta webgunean ere badaude.

Matrikula egiteko

- Internet bidez: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/euskara>

Azterketetarako oharra

- Azterketara NA, gidatzeko baimena, pasaporte edo egoitza baimena eraman behar dira. Dokumentaziorik gabe ezin da azterketa egin. Fotokopiek ez dute balio.
- Garaiz iritsi behar da. Azterketa hasita badago, ezin da inor gelara sartu.
- Atariko Probarako lapitza eta borragoma behar dira. Beste azterketetan, boligrafoa.

Gehiago jakiteko

- Euskara batua. Euskaltzaindiak argitaratzen dituen erabakiak biltzen dituzten liburuak.
- EGaren baliokideak:
64/2008 Dekretua (2008/4/15eko EHAAn)
48/2009 Dekretua (2009/03/13ko EHAAn)
263/1998 Dekretua (1998/10/23koEHAAn)
- 2009ko azaroaren 25eko Agindua, 2010 urteko Euskararen Gaitasun Agiriaren (EGaren) azterketa-eredua finkatzen duena.